

INGURUMENA BARAKALDON: BARAKALDOKO INGURUMENAREN GAINEN ZENBAIT GOGOETA

El futuro del medio ambiente en Barakaldo en particular y en general de Euskal Herria, siempre dentro de un contexto más global, va a estar muy ligado al grado de alfabetización ambiental que posean los ciudadanos. Es necesaria una alfabetización ambiental urgente de las clases dirigentes, o unas asesorías más adecuadas y unos modelos de desarrollo más respetuosos con el medio ambiente y más solidarios (sólo se destina el 0,38% del P.I.B. para los países en vías de desarrollo) con la mayor parte de la especie humana.

Esto puede suponer que el tipo de sociedad que vayamos construyendo los ciudadanos, es decir, los modelos económicos, de producción y en definitiva el modo y grado de intervención del ser humano con respecto a la naturaleza, sea en base a modelos más o menos sostenibles. Lo que está claro es que la pelota está en nuestro tejado y que la solución a la mayor parte de los problemas medioambientales actuales están en manos de los dirigentes económicos y políticos del llamado primer mundo.

Saia gaitezen lurralde baten ingurumenezko osasunaren kontzeptua definitzen: lurralde bateko ekosistema desberdinak zer egoeratan dauden ebaluatzea izan liteke (habitatak + biozenosia + gizakia), ahaztu gabe gizakia, “Urb” ekosistemen barruan eta kanpoan, modu berezian izan arren, planeta engranaje ikaragarriaren atal naturala dela, eta gizarteen gogobetetasun eta bizitza kalitate mailak halako ebaluazioetan kontuan hartu beharreko oso parametro garrantzitsuak direla.

Horren harira, giza espeziea planeta honetako beste espezie bat da, kopuruaren aldetik, baina nolakoari begiratuta, ingurunean eragiteko duen ahalmena, teknologiari esker, beste espezieena baino askoz ere handiagoa da.

Badirudi hizpide dugun eremuak 2025erako munduko biztanleriaren %70 hiritarra izango zela zioen aurreikuspena bete da. Azkeneko mendean, Barakaldo landa paisaia eta ekonomia eta gizarte egituretatik lurraldearen okupazioaren zurrumbilo egoerara igaro dela, eta XX. mende osoan zehar neurrigabe gauzatu zen garapen eredu geldiezina, gailurra joan den mendeko 60 eta 70. hamarkadetan iritsiz. Gaur egun, gizarte eta ekonomia errefluxuko bi hamarkadaren ondoren, Barakaldo, ia 100.000 biztanlerekin, milioi bat herritarretik gorako hiri metropolian sartuta dago, eta metropoli hori, aldi berean, erregioko makroegitura batean kokatuta dago. 80. hamarkadan “konurbazio” esaten zitzaion eta egun “erregio hiriak” izena eman zaie, nazioarteko testuinguruan. Izan ere, EAEk, 2 milioi biztanlerekin eta 300 biztanle/ km²tik gorako dentsitatearekin, Miami edo Sidney erregio hi-

rien pare, nazioarteko mailan “Cities egitasmoa” deritza horretan parte hartzen du, hirigintza eta lurralde ikuspegitik sortzen zaizkion arazoei ez eze, XXI. mendeko hirien barruan planteatzen diren politika, ekonomia, gizarte eta kultura mailako arazoei ere zentzuzko erantzuna ematen saiatuz. Beren beregi aipatzen ez den arren, pentsatu nahi dut hiri ingurune hauetan esplizituki adierazten diren ingurumeneko arazoei ere erantzuteko ahalegina egingo dela, besteak beste:

- Urbanizazio sakabanatu eta desordenatua
- Herri garraibide eragingarrien sistemak artikulatzeko zailtasunak
- Egoitzazko eta enpleguko eremuen kokapenaren doitzarik eza
- Nekazaritza eta natura eremuen okupazio sistematikoa
- Hiri erregioko eremu desberdinen nortasunik eza
- Eskumenen zatiketa administratiboa
- Ingurumeneko eragin negatiboen gehitze esanguratsua, lur, ur eta aireko kutsadura tasa larriez.
- Habitaten suntsitze garrantzitsua eta bioaniztasunaren galera.

Hizpide dugun metropolia nolabait eta, bereziki, Barakaldoko udalerrria arestian esandakoaren adibide ona izan daitezke.

Goazen atalez atal, eta egin dezagun egun Barakaldoko udalerrria eratzen duten paisaien eta inguru-nearen historia naturalaren sinopsi labur-laburra.

Plaken tektonika deritzonaren testuinguruan, plaka Iberikoak ibar eusko-kantabrikoaren eremuan izan

duen milioika urtean zeharreko bilakaerak gaur egunean 42°N paraleloan-edo kokatuta dauden paisaiatzeko lerro handiak ekarri ditu, geofoma batzuek eraginez, hizpide dugun eremuan batez ere Bizkaiko sinklinorio deritzon kokatutako NW-SE norabideko 15 bat kilometroko estuarioan gauzatu.

Paisaiaren azkeneko ukituak azkeneko koaternarioan izan dira, Würm glaziazioan eta glaziazioaren osteko epean (holozenoa), itsas aurrerakada eta atzerakada prozesu garrantzitsuak ekarri dituztenak, itsas uren maila handiago edo txikiagoen araberak itsasaldeko geofomen ondoriozko aldaketaz.

Gaur egun, Barakaldoko udalerriaren zati handi bat estuarioaren erdiguneko Nerbioi ibaiaren mendero abandonatu baten gainean ezarrita dago, non duela ez asko estuarioko barrualdeko ohiko hezeguneak (fadurak) nagusi baitziren. Hego-mendebaldetik Argalario mendiaren magalak eta oina ere hartzen ditu, nondik Regato ibaiaren arantetik sartzen den.

Barakaldoko paisaien interpretazio birtualeko ariketa egin dezagun, eta joan gaituzten 200 bat urte atzerago (paisaia baten historia naturalean ezer ez den denbora), industrializazioaren prozesua baino lehenagoko garaia. Dauzkagun datuek elizate baten inguruan sakabanatutako giza ezarpen batzuek hitz egiten digute, Galindo eta Kadagua ibaien ahoetan garrantzitsuagoak zirenak, ur ekosistemez inguratutako (Nerbioi, Kadagua, Castaños, Granada, Galindo ibaiak, Ansioko hezeguneak, Lutxana, Zuloko-Ibarreta...) estuario zabal baten erdigunearen ezker aldean kokatutakoak (Kantauriko kostaldeko handienetakoak).

Oro har, eta oraingo ebaluazioko irizpideekin, esan genezake paisaia haien ingurumenezko kalitatea handia izango zela, ibar eta landazabaleko sistemetan sakabanatutako herri guneeak, ikusgarritasun kalitate handikoak eta, oro har, ingurumeneko eragin negatiboen maila (gorotz urak, burdinolak, portu eta hondatutako toki txikiak) aire, ur eta lur sistemek onartzeko modukoa zutenak. Jatorri geologikoa eta mikroklimaren ikuspegiko beste alderdi batzuek albo batera utzita, duela 50 bat urteko Urdaibai itsasadarraren paisaien parekoak zirela esan genezake.

Erregioaren historia geologikoa erliebe gogorrek ekarri ditu (Trianoko mendiak), kareharri urgoniarretan modelatuta, behe kretazikoko tarte Aptensean zehar baldintza tropikaletan itsas plataformatan eratu ziren materialetan, alegia, duela 40 bat milioi urte orogean zehar airepeko erliebe gisa irten zirenetan. Kareharrien pakete honetan denboran zehar burdina mineralen mineralizazio garrantzitsuak ekarri zituzten prozesu geokimiko batzuek gertatu ziren, eta burdina

mineralizazioaren baliabidea izan da, azken batean, estuario honen azkeneko 200 urteetan jasan duen ingurumeneko aldaketa sakonaren jatorria, eremuko ingurumenean eta ekosistemetan, baita idiosinkrasian eta kulturen ere, eragin duten giza eta industria ezarpenengatik.

Gaur egun oraindik kontraesanezkoa da, nolabait, Barakaldon Ingurumenaz hitz egitea, zeren hamarnaka urtetan zehar udalerrri hau Euskal Herria, Espainia eta Europako ingurumeneko bibliografiaren barruan eremurik kutsatuenean paradigmatiko bat izan baita.

70. hamarkadan, Barry Commoner Nobel sariak, Bilbo handiaren eremura egindako bisita baten ostean, inoiz ikusi zuen ingurumeneko eragineko adibiderik gehien zituen eremua zela esan zuen, eta historia-ira igaro zen esaldi batekin adierazi zuen: “berak ikusitako izugarrikeria ekologikoen museorik handiena”, eta nik, garai hartan Erandion bizi nintzenak, hauxe gehitu ohi nuen: “ eta guk jasandakoa”. Garai hartan hasi ziren ofizialki erregistratzen airearen kutsaduraren indizeen lehenengo datuak, eta ingurumeneko degradazioaren hamarkadek sentsibilizatutako herri iritzia ere horren gaineko bere iritziak adierazten hasi zen (Erandioko 68ko gertakariak).

Eremu honek jasan dituen atmosfera kutsadura maila handiak ulertzeko, kokatuta gaudeneko Bilbo handiaren eremuaren geografia fisiko erregionala pixka bat ezagutu behar da, NW-SE orientazioko 15-20 kilometroko estuarioa ardatz duen bailara luzangaren barruan gaudela ulertuz, bi alboetatik Bizkaiko sinklinorioaren atala diren mendiak ditugula. Korridore natural honetan ezker aldeko erdi eta kanpoko eremuan sortutako gas kutsadura batez ere barrurantz doa, NW-ko haize nagusiek bultzatuta, barrualdeko mikro-erliebe txikietan geldituz edo Bilbo inguratzen duten erliebeek osatzen duten amarru geografikoan kontzentratuz. Egonkortasun atmosferikoaren baldintzetan, estuarioa eratzen duen bailara luzanga prozesu klimatiko jakin batzuei laguntzen dien erliebea da, hala nola, sufreak eratorriak aipagarrienak direneko gas kutsatzaile ugari lurretik gertu geratzen dituzten airearen kutsadura episodioen lagungarri den inbertsio termikoari. Antizikloi baldintza iraunkorretan, gaueko inbertsio termikoko episodioetan, partikula kutsatzaileak “smog” beldurgarria (inbertsioko behe laino hotzetan harrapatutako substantzia kutsatzaileen nahastea) eratuz harrapatzen dituen nolabaiteko amarru geografikoa da, beraz. Eremuko kutsaduraren uxatzeko “konponbidea” euri edo haize gogorrek agertzen direnean etortzen dira, baina horrek arazoa beste eremu batera eramatea besterik ez da, euri azido erara zein kutsadura hodei gisara, hurrenez hurren. Batzuetan, arazo hau gainditzen saiatzeko in-

bertsioko geruzaren mugak gainditzen dituzten tximiania handiak jartzen dira (esaterako, Petronor).

Hartara, Bilbo Handiaren barruan, Barakaldo batez ere bi motako kutsadura sortzaile eta esportatzaile izan da: bata airearen bidez metropoliaren eremuaren barrualderantz, inguruan nagusi diren NW haizeengatik, eta bestea uraren bidez, itsasadarrera isuritakoengatik, horren ondoriozko estuarioaren kanpoaldeko eta itsasadarraren ahoaren ekialdean dagoen kostaldeko hareatzen kutsaduraz, kanpoaldeko Abran eta Uribe Kostan kutsadurako episodio larriak eraginez.

Ez dira ahaztu behar, gainera, hain ezagunak ez diren baina bertan bizi diren pertsonen bizi kalitatean eragin txarra duten beste kutsadura motak. Hor dago paisaiaren ikusgarritasunaren kalitatea izugarri hondatzen duen kutsadura estatikoa, batez ere zementutzko mendi anonimo eta berde edo urdin-gunerik gabeak garatu dituen arkitektura nagusitu deneko espazioaren antolamenduan oinarritu dena, non jarraitasuneko ebazpiderik gabe hiri eta landa ekotonoeak dakarten degradazio eta bazterkeriako espazioetara igarotzen baikara.

Hiriko zarata kutsadura, batzuek “dezibelioaren sindromea” esaten diotena, eta zaratatsua eta oso dezibelio altukoa den gizarte honetan nolabait gutxietsia, oso handia eta garrantzitsua da eremu honetan. Industriako zarata, eraikuntzaren alorrekoa, hiri azpiegituren birmoldatzearena eta trafikoarena oro har, osasunaren ikuspegitik gomendagarria dena baino askoz ere handiagoa izan da hainbat hamarkadatan. Eremuan egiten ari diren antolamendu berriek eraikuntzaren alorraren gorabide ikusgarria dakarte, bai industriaren alorrean bai etxebizitzarenean, eta horiek,aldi berean, hainbat errepide azpiegitura eraikitzea, paisaiaren kalitate estetikoa okertzeaz gain, zarata kutsaduraren maila nabarmen igotzea dakartenak, obra tarte luze eta horiei lotutako trabez gain (zarata, hautsa, trafikoaren berrantolamenduak...). Aditu askoren iritziz, litekeena da zarata kutsadura hiri eremuetakoa gizakien jasaten dituzten ingurumeneko eragin negatiboetan nagusienetakoa izatea, eguneroko jardueran ondorio larriak dituena (egitekoak egiteko gaitasuna, komunikazio arazoak, estresa, eta abar).

Gaur egun, eremuko ikusgarritasunaren kalitatea baxu samarra da, paisaiaren lehen aipatutako hirigintzako egitura eskasez eta garraioko errepide handiez gain, paisaiaren garraio elektrikoko sare izugarria ere badago, eta gehienetan lurperatu gabe dauden telekomunikazio antenak ere bai, ikusgarritasunaren kalitatearen defizita ez eze, herritarren osasunean gero eta arrisku ageriagoa dakartenak.

Barakaldoren etorkizuna, eta oro har metropoliarena, ez da burdinaren industriatik eratorritako megaindustrian. Trianoko mendietako burdina izan den baliabide geostrategikoaren amaierak, eta industria azpiegitura zaharkituak XX. mendeko 70. hamarkada aldera garapen eredu batzuek kolokan jarri zituen krisi izugarria eragin zuten, eta agerian geratu zen eremuko oreka naturala erabat distortsionatuta zegoela. Eremuak ordaindu zuen koste ekologiko ikaragarria, eta eremuko ekosistema naturaletan izandako garapen zalekeria basatiak eragin ekologikoei zegokienez utzitako herentzia negatiboak antzematen hasiak ziren. Pertsonak ere lurraldetik alde egiten zuten, %25 inguruko tasan. 80. hamarkadako Barakaldoko herritarrengan arazo psikologikoak agertzea (langabezia, frustrazioa, igurikapenik eza...) lurraldearen ingurumen osasunaren barruan sartzen da. Dena dela, hemen ere egiaztatzen da, logika orokoren aurka, objektiboki oso degradatuta dauden eremuetan bizi diren pertsonen paisaia horienganako oso pertzepzio psikiko positiboak garatzen dituztena.

Azkeneko hamarkadetan, hirigintzako egituraren transformazioa oso garrantzitsua izan da, industria egitura handiak desegin dira eta gizarte eta hiri eginkizun berria kudeatu behar zaieneko espazio libreak agertu dira. 90. hamarkada erdiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra dago, aurreko hamarkaden aldean espazioen antolamendu arrazionalagoa aurreikusten duena, baita itsasadarraren beste aldearekiko komunikazio handiagoa ere. Udalak plan hau idatzi zuen, eta duela 7 urte Bilboko metropoli eremua berpizteko xedeaz sortu zen Ría 2000 planaren barruan sartzen da. Oro har, ikusgarritasunaren kalitatea nabarmen gehitzea aurreikusten da, berde eta urdin-guneak ere nabarmen gehituz, eta aurreko garaietan hain ohikoak izan diren gris-guneen (zementuak) gutxituz. Paisaia zaleen, urbanisten, arkitektoen, soziologoek, ekologoek eta gaur egungo diziplina ugariok lan taldeen gainerako kideen garaia da, baita libreki adierazitako iritzi publikoak kontuan edukitzeko ordua ere, sortuz doazen egitasmo partikular desberdinen informazio eta alegazioen tarte eta epeen ondoren. Komeniko litzateke itsasadarraren ardatzak etorkizuneko erreforma eta antolamendu guztia bere gain ez hartzea barrurago dauden eta, egun oraindik lehenesten diren merkataritzako irizpideekin, hain errentagarriak ez diren beste eremu batzuen kaltetan.

Oro har, lurralde baten ingurumeneko kalitatea gizakiak ingurunearekin duen elkarrekintzaren emaitza da, non giza alderdia batzuetan oso dibergenteak diren interesak defendatzen dituzten kolektibo desberdinek ordezkatzeko baitute, batzuek hurbileko eremu naturalean edo urrunagoko beste batzuetan desoreka larriak ekar litzaketelarik.

Barakaldoren kasuan, ia ezkerralde osoan bezala, berriro hastea esango bagenu bezala da. Kolektibo berriak, bere historiaren fase berri batean, aurretik baldintza orokor hobekak dituen lurralde bat antolatzen hasten dira: udal eta udalaz gaindiko egitura demokratikoak daude, informazio orokor eta ingurumeneko handiagoa duten pertsonen kolektiboak daude; bestalde, ingurumeneko gaien ezagumenak jauzi kualitatibo garrantzitsua eman du eta, printzipioz, pertsonak ingurumeneko arazoan aurrean duten jarrera beste garai batzuetan baino positiboagoa da.

Erronka hori daukagu, argi dago, eta pertsona talde desberdinak, oso interes eta kalitate eta kantitatezko presio estrategia desberdinekin, berriro ere, kulturazko geruza fosilen gisara bizitzea egokitu zaien historiaren oinatzat utziko duteneko espazioaren antolamenduaren inguruan bildu dira. Etorkizuneko belaunaldiek jarduera hauek baloratuko dituzte eta pentsatzen dut, nolabait, elkar ulertzea kondentatuta gaudela, guztion onerako.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, aurreko hamarkadetakoa kutsaduraren hondar garrantzitsuak geratzen direla, lindanoaren gaiarekin gertatu den bezala. Bat batean, 80. hamarkadan jakin zen Bilbo handiko eremu lur kutsatuen tasa penintsulako tasarik altuen artean zegoena, eta ekialdeko herrialde batzuen marka negatibo tristeetatik oso gertu. Itsasadarreko lokatz kutsatuen gaia beste gai berezi bat da, zentzu handi edo txikiagoko soluziobidetik oraindik urruti dagoena. Bestalde, eremu ibaien uren kalitate oroko-

rrak kutsadura larritzat sailkatuta dago oraindik ere, eta bainurako egoki edo, Estokolmon bezala, izokinaren arrantzurako modukotzat jotzeko aukera urrun ikusten da oraingoz.

Gaur egun badira industria batzuek, esaterako, Sefanitro, une jakin batzuetan legediak onartutako mugak gainditzen dituzten kutsadura indizeak dituztenak, eta horren inguruan bizi direnekin gizarte auziak ekarri dizkie, edo administrazioko auziak, isun erara, Ingurumen saileko agintariekin. Orain duten kokapenak, estrategikoki oso txarra izanik, eremuaren berrantolamendua izugarri baldintzatzen du, kontuan izanda instalazioen bolumena.

Aurreko garai ez-demokratikoetan eremu honetan ekintza ugari egin dira, ingurumenak eraginak hartzeko zuen ahalmena kontuan izan gabe, eta adituen eta gizarte mugimenduen iritzia bat ere kontuan izan gabe, adierazpide demokratikorik ere ez baitzegoen.

Gaur egun gauzak ikaragarri aldatu dira, adituen eta gizarte mugimenduen iritzia batzuetan nahikoa jaramon egiten ez zaiela sumatzen den arren. Komeniko litzateke informazioa ugaria eta itxuraldatu gabea edo mediatizatu gabea izatea, ideien kontrastea efektibo izatea, gizarte mugimenduen iritzia kontuan hartzea, egitasmo espekulatuak herri interes orokorren ginetik ez egotea..., azken batean, metodo zaharrak teknika mediatiko berriekin ez aplikatzea.

Egungo ingurumeneko legedia zabala eta aurrerakoa da, bai autonomia erkidego mailan bai estatu eta



Sefanitro fabrika.

Europa mailetan ere, baina aplikagarritasunerako benetakoa maila orokor baxua dauka. Komeniko litzateke legedi hori estu-estuan betetzea gizartearen beste esparru batzuetan aplikatzen den normaltasunaren parekoaren barruan.

Iragan hurbilean eta gaur egun toki mailan guztion ahotan, egunkarrietan dauden hainbat egoera, gai eta tentsio daude, nolabait herritar guztien kezka direnak.

Orokorrean hitz eginez, esan genezake erakunde jakin batzuek baliabide natural batzuek doan erabili izan dituztela eta erabiltzen dituztela (ura, airea, lurra), garbiak ez diren produkzio prozesuetarako, mozkina pribatizatuz, ingurune naturala hondatuz eta ingurune natural horien kaltea eta berreskuratzeko kostea sozializatuz. Esaterako, lindanoren historia, Bayer enpresak 60. hamarkadan legedi nasai edo ez zegoen batean babestuta ehunka lindano Tm utzi zituen metropoliaren eremu zabaletan. Argalarior mendiko lindano ziegaren gai auzitsua egun konpontzen ahalegintzen ari diren halako jarduera moten ondorioa da. Garbi dago kutsatu zuenak ez zuela ordaindu, eta ez duela atzerako eraginez ordaintzen ere, eta gaur egun, legearen babesean (“kutsatzen duenak ordaintzen du”) halakorik gerta ez dadin saiatzen ari dira.

Barakaldoko ingurumenaren etorkizuna ere toki mailan burutzen den ingurumeneko politikarekin (Zuloako eta Ibarretako ibarrak), eskualde mailan egiten denarekin (IGCC Abanto, Petronor), baita autonomia erkidego mailan (garraioko ardatz handien luzeran jarraitasuneko ebazpiderik gabeko konurbazio handi bihurtzeko bidean) edo estatu espainiarrean egiten denarekin ere (esaterako, Bilbo handitik Ierro zuzenean 80 kilometrorra dagoen Garoñako zentral nuklearra, edo Nazioko Plan Hidrologikoaren III. iparraldeko arroi dagokion zehaztapen jakin bat) lotuta egongo da nolabait.

Gaur egun planeta honen ingurumen osasuna oso delikatua da, eta adituen iritziz konponbidea lehenengo munduan dago, hortxe baitaude politika, gizarte eta ekonomia gai desberdinetako botere eta erabaki guneak (globalizazioaren herrialdeen bilera Bartzelonan). Esaten da harik eta lehenengo munduko herritarrek eta beren agintari ekonomiko eta politikoen arazoaren zenbaterainokoa eta larritasuna onartzen ez duten arte, kolisiorako norabideak aldaezina ematen duela, eta gero eta denbora gutxiago daukagula zuzentzeko irizpide eta parametroak sartzeko. Gure etorkizuna *bizitzaren sistema euskarriak* deritzenek, alegia, lurra, atmosfera eta hidrosfera hurrengo hamarkadetan izango duten bilakaerari ere oso lotuta doa. Begi-bistakoa da larraldien ohartarazleak jada piztu direla, eta azkeneko 25 urteetan ez direla behar

ziren neurri zuzentzaileak abian jarri. Are gehiago, duela 25 urte planetako biztanleriaren %25ek baliabideen %75 kontsumitzen zuen; gaur egun, globalizazioaren fenomenoak zenbaki horiek aldarazi ditu, eta munduko biztanleen %17k soilik planetako baliabide guztien %80 kontsumitzen du. Erromako kluberrako 1997ko 4. Faktorea delako txostenak planetak 4 edo 5 hamarkada iraungo duela bizirik, baliabideen kudeaketako eredu honekin jarraitzekotan. Izan ere, planetaren krisia modu ugari eta desberdinetan ageri zaigu planetako lurralde askotan (katastrofe naturalak, gerra kimiko eta bakteriologiakoak, mehatxu nuklearra, goseteak, pandemiak, ur eskasia...).

Baliteke zaila izatea tokiko ikuspegi batetik aurre egitea oraingo hamarkadetan planeta honetako historiaren agortze masiborik handienera sartuta egoteari, garai permikokoa (-260 m.a.) eta hainbatetan aipatutako dinosauroen eta beste landare eta animalia espezie askoren desagertzea ekarri zuen Kretazioko amaierakoa (-65 m.a.) baino handiagoa baita.

Gizadiaren historian lehenengoz hasi gara mugak ezagutzen (baliabideak, hazkundera, suntsitze masiboa ...), zenbat eta planeta honen bizitzaren euskarri diren sistemen funtzionamendua, elkarrekiko mendentasuna eta hauskortasun handia gehiago ezagutu, hainbat eta gehiago gainera.

Aurretiaz epe ertainerako agertzen zaigun etorkizuna ez da oso pozgarria; ingurumenaren etorkizuna, Barakaldon bereziki eta, oro har, Euskal Herrian, eta testuinguru orokorrako batean beti, herritarrek daukaten ingurumeneko alfabetizazioaren mailari oso lotuta joango da. Agintariak berehala alfabetatu behar dira ingurumenari dagokionez, edo aholkularitza egoikiagoa eman behar zaie, eta ingurumenarekin abegitsuagoak eta gizakirik gehienekin solidarioagoak diren garapen ereduak hornitu (garapen bidean dauden herrialdeetara BPGren %0,38 baino ez da bideratzen).

Horrek ekar dezake herritarrok eraikiz goazen gizarte mota, hau da, ekonomia, produkzio ereduak eta, azken batean, gizakiak naturarekiko duen interbentzio modua eta maila, eredu iraunkorrako edo ez hain iraunkorretan oinarritzea. Garbi dagoena da pilotatutako gure teilatuan dagoela, eta egungo ingurumeneko arazorik gehienek konponbidea lehenengo mundua deritzonoko agintari politiko eta ekonomikoen esku dagoela.

Garrantzitsua da hezkuntzatik ingurumeneko hezkuntza ere curriculumen barruan sar dadin, eta zeharkakotasuna deritzona, diziplina arteko irakaskuntza eta ikuspegi sistemikoa normaltasun izan daitezen eskola esparruan. Jada duela 10 urte izan zen Rioko konferentzian, besteak beste, Agenda 21 izeneko



Gorostizako zelaiak.

proposamena ere bazegoen, tokiko erakundeei ingurumeneko gaiak eta arazoak udalerrietatik lantzeko iradokitzen ziena. Horren harira, udalerrri hau, Hezkuntza sailarekin batera, duela bi urtetik “Ezagutu Barakaldo” deritzon esperientzia interesgarrian murgilduta dago, non milaka eskola umek, zenbait ibilbide didaktikoren bidez, beren herriko historia berria ezagutzen baitute, ingurumeneko hainbat jarduera ere burutuz. Oso positiboa da udalerrria bera baliabide didaktiko legez erabiltzea, horrela heziketarako ere oso betekizun garrantzitsua hartzen baitu.

Honaino helduta, ondorioak atera eta konponbideren bat eskaintzeko orduan, ikusi dugu arazoak hainbeste globalizatu eta handiesten direla, izaeraz zein kopuruz, non planteatzen diren konponbideren batek edo konponbiderik gehienek kontuan hartu behar baitituzte estu-estuan tokikotik harantzagoko ikusmirak. Dena dela, ez da inola ere erabakitzeko tokiko esparrua baztertu behar, eta maxima hark zioenez, “orokorrean pentsatu eta tokian-tokian jardun”.

Pertsonen bizi kalitatea, beraiek baitira hiri sistemen izateko arrazoa, erakinetan, kaleetan, espazio zabaletan eta ingurumenean, eta horretarako guztira-

ko jarreran islatu eta, hein batean, ebaluatu ere egiten da. Barakaldok eta kokatzen deneko metropoliak balore ugari dauka horien gainean eraikitzeko. Iraganetik atera behar dugun ikaskizunik garrantzitsuena da ingurumena funtsezko alderdia dela hiriaren bizitzan, eta ingurumenaren babesean eta berpiztean huts egiteak, nahitaez, eremuaren gainbehera orokorrera eramango duela, baita maila ekonomikoan ere, egiaztatu ahal izan dugun bezala.

Baliteke XX. mendeko Bilbo handian garapenaren eragina utzi zuen Liverpooletik, XXI. mendera begira hiri sistema batean ingurumenean ondo aritzearen paradigma den Estokolmorako bidaia bat, apustu interesgarria izatea, etorkizunari begira.

Barakaldo, 2002ko apirila

Juanma Iturralde Kildal
Barakaldoko Berritzeguneko Zientzia
eta Teknologia alorreko aholularia